

# Nazio eta herri mailako barietateen erabilera normalizazioranzko prozesuan Arrasaten

JULEN AREXOLA-LEIBA  
(O.H.O.eraiko Irakaslegoaren Unibertsitate Eskola, Eskoriatza)

## 0. Sarrera

Euskal Linguistika eta Filologiako I. Kongresurako, 1991ko irailean euskal dialektologiaz aritu zen kongresurako, ea zerbait gerta nezakeen Arrasaten barietate estandard eta bertako barietatearen artean ematen den hierarkizazioaz aipatu zidateanean, gerora baieztatu egingo zen susmoa izan nuen. Hau da, agertutako lanik gehientsuenak euskalkien edo azpi-euskalkien korpusari dagozkion arlo konkretuez aritu ziren, eta gutxi batzuk baino ez ginen izan hautatu eta kodatu ahala ea zer egin daitekeen barietate horiekin hausnarketa egitera deituak. Edonola ere, han eta hemen hori izaten denez ohizkoa, eskertzekoa ere bada “Julio Urkixo” Euskal Filologi Mintegiak kongresuaren ia egun oso bat eskaini izana soziolinguistikoagoak diren arloei.

Hasiera beretik, beraz, jakinaren gainean jarri gura dut irakurlea ondoko orriotan aurkitu ahal duenaz. Honela ba, Deba bailarako, eta, bereziki, Arrasateko barietate linguistikoaren iraganaz, orainaz eta etorkizunerako nondik norakoez aritu gura nuke momentu honetako perspektibatik abiatuta; nire iritzia eman azken aldi honetan aipatu herrian eta eskualdean inoiz baino biziago datorren eztabaida sakonari zertxobait ekarri guran.

Esandakoa bada helburu, pentsatzekoa da hausnarketa hauen irakurlegoa bertako errealitatea ezagutu eta berorretan eragiteko gertu daudenetara mugatzen dela hasiera batean. Eta ez da gutxi. Bailaran zehar modu koordinatuan bideratzen hasita dagoen prozesurako erabilgarria izango den zerbait ateratzen bada, ni konforme horretxekin; hots, eztabaidagaiak hobeto kokatzeko lagunduko duen zerbait izatera iristen bada, beteko du bere momentuan dagokion egitekoa. Helburu curricularretatik urruti, beraz, une eta gune konkretu batean eragiteko ekarpena da.

Esan dezadan, bidenabar, Gerardo Elortza adiskideak I. Kongresu honetara ekarritakoaren osagarri izan gura duela lantxo honek. Bera, edozein estandarizazio prozesutarako hasierako lana denaz aritu da, estandarizatu nahi den barietatearen datu bilketaz, alegia; nire ekarpena, berriz, hurrengo fase baterako —oraingoxetik bertatik

aurrikusten hasi behar dena—, ea datu horien kodaketarako, hasteko, eta gizartera-tzeari ekiteko, ondoren, kontutan hartzeko moduko aldagai historikoak, demolin-guistikoak eta funtzionalak zeintzuk izan daitezkeen esaten saiatzen da. Bi lan osagarri, elkarren beharrean direnak. Beste hainbat mintzagai izateko sortuak biak; preskriptiboak baino, deskriptibo izan nahi dutenak. Noizbait “erabaki behar-rekoetara” iritsi ahal izateko lehen pausuak.

Neure aldetik, egin asmo ditudan gogoetak anekdotario itxurarik izan ez deza-ten, nonbait kokatzen hasi behar eta, aipa dezadan Einar Haugen-en planifikazio-eredua suertatuko zaidala baliagarri hasiera batean, eta Txepetx-en teoria sozialaren hariari lotuko natzaiola gero.

Seguru asko, iraganaren apologiatik egungo egoeraren tremendismora bitartean izango da non jokatu. Zer izan zen eta zerk beharko lukeen, kontutan hartzekoak dira, baina ez gaitzabela itsutu oraina desitxuratzeraino. Gauden egoeran gaude eta ez gura izango genukeenean. Edozein barietate linguistiko, komunikaziorako tresna bizi izatekotan, hitzunen egunerokotasunean baden neurrian izango da; errealitatean den hori daukagu gogoan beraz. “Euskera ona egiten dena” esatea gehiegitxo bada ere, ez da hobe txanponaren beste aldea, hizkuntzak papereratuta dena eginda dagoela pentsatzea.

Bi pentsaera kontrajarriren artean, muturretara eroanda elkartezinak diruditenen artean, bidea zabaltzen asmatu behar da. Bidea egiten asmatu baita denboralizazioari dagokionean ere, presaka aritzeagatik ez gara, seguruenera, inora bizkorrago iritsiko eta; jakinaren gainean, gainera, bertako barietate linguistikoaren estandarizazioari buruzko eztabaida soziala, euskaldun kulturizatuen artean ematen dela gehien bat (alfabetatu gabeen noizbehinkako komentarioak gutxietsi gabe, jakina).

Arrasaten, egia esanda, ez gara aurretik ibili gai honi dagokionean, ingurutik (Eibartik 1985ean, “Euskara Euskalkiak” ihardunaldiekin; Bergararik, UNEDeko Euskal Departamentuaren ahaleginei esker) hedatu ohi da gurea kezka. Ez gabiltza-nez, alabaina, aitzindariak eta merituak banatu nahian, bai esan gura nuke somatzen dudala une apropos-aproposa dela lanari behar besteko eraginkortasunaz heltzeko; orain daukagu eta, aukera hobe (tabernako konbertsazioetatik eta ikusmira argirik gabeko bileretatik aldenduta) euskararen normalizazioranzko prozesuan urratzen hasi garen bide berrietan (herri mailako komunikabideak, hitzarmen bidea,...) eragi-teko.

Izan ere, organoak sortzen du funtzioa, edo funtzioak organoa? Bigarrena, duda barik. Honela, gogoeta hauetan funtzioaren gorabeherez arituko naiz, organoaren ezaugarriak taxutzerakoan kontutan hartzeko moduko batzuk zehaztu guran.

## 1. Atariko historikoak

Ez dugu ezer berririk esango gogora arazi ezkerko XX. mende honetako hasierara arte, Arrasate eta ingurutako elebitasun sozialaren graduazioa, Txepetx-en teoria sozialaren arabera, elebitasun “exterior” eta “interior” arteko zerbait izan dela, hau da, bertako barietatea zen erabiltzen zena nagusiki testuinguru gehientsuenetan, baina erdararen beharra “nor bait izatera ailegatzeko” beti egon ohi zen presente;

Foruen galerak (eskola eta soldadutza) eta industrializazioak areagotu egin zuten elebiduntze prozesua biziro, eta bizpahiru belaunalditan joan da elebitasun sozialaren graduazio horretan aurrera, aldebakarreko elebakartasuna nagusitzeraino gure artean.<sup>1</sup>

Mende hasieran ez ziren asko gure eskualdera kanpotik bertaratuak baina ederto integratzea lortzen zuten bertakoekin harremanetan egotearen poderioz, harreman informaletarako hizkuntza euskara baitzen industrializazioaren hasiera hartan baita kaletarren artean ere. Sebero Altubek idatzitakoak dira ondoren datozenak, XX. mende honen hasierako egoeraren berri eman gura duelarik:

Los habitantes de esas comarcas, o sea de los pueblos como Tolosa, Bergara, Mondragón, Durango, Gernika, etc, etc., apenas conocían el erdera, fuera de algunas familias acomodadas que podían darse "el lujo" de trasladarse, para aprenderlo, a pueblos extraños, o costear la enseñanza particular (Altube 1933: 312).

Edonola, txarrerako aldatzen hasita zeuden kontuak ordurako ere —ez baita komeni ahaztea kaletarren artean erderarako joera nahiko zabaldua ei zela gerra aurretik ere—, eta bizkortu egingo ziren 1936ko azarotik aurrera, Arrasatera dikadura militarren zama suntsitzailea iritsi zenetik.

Urte luzeetan intimitate mailako hizkuntza bihurtzen da euskara, etxekoekin eta norberaren buruarekin harremanetan jartzeko hizkuntza —hala izan zedin erabakia hartu zutenen artean, noski, etxeko transmisioa 1936tik aurrera moztu egin baitzen etxe askotan—. Ordukoaren ondorioak ez dira oraindik atzendu bistan denez, genozidioa izan zitekeena (Gernika,...) erabateko etnozidioa izatera ere ez baitzen iritsi,

(1) Hizkuntzei dagokien historia soziala burutu ahal izateko, laguntza handikoa izan daiteke elebitasun sozialaren graduazioaz Txepetxek ematen duen sailkapena:

#### Modalidades de bilingüismo social

- 1.—Monolingüismo absoluto: la lengua propia del grupo social y el Lenguaje Humano son consideradas una y la misma cosa. La sociedad ridiculiza el conocimiento y uso de la aberrante algarabía de los *bárbaros*.
- 2.—Monolingüismo relativo: Se reconoce la existencia de otra lengua humana. Pero la propia es la única necesaria.
- 3.—Bilingüismo pasivo: Sólo la lengua propia es utilizada en todo contexto. Pero se reconoce la necesidad de que algunos hablantes conozcan, y muchos más sean capaz de entender, la lengua extranjera.
- 4.—Bilingüismo exterior: Dentro del territorio, la lengua propia es la única necesaria. Pero hay necesidad social de conocer bien otra lengua como lengua vehicular de relación con otra(s) comunidades idiomática(s).
- 5.—Bilingüismo interior: Una de las lenguas (la previamente exterior) funciona como código externo que se utiliza con grupos profesionales distintos o clases sociales diferentes a aquella en la que el grupo interno está ubicado. La lengua patrimonial se usa en los casos restantes.
- 6.—Bilingüismo interno: Uno de los sistemas cubre las funciones de la esfera *normal* o *extrema* (= no íntima), el otro las funciones de la intimidad y de los grados más marcados de confianza.
- 7.—Bilingüismo íntimo: Hay dos lenguas para la expresión. Una es socialmente necesaria y la otra socialmente superflua. Pero la segunda (que es la lengua patrimonial) aglutina todavía los procesos mentales más personales, efectivos y creativos, siendo reconocida por ellos como su lengua de identidad.
- 8.—Bilingüismo idéntico: Las dos lenguas organizan ya el pensamiento de los hablantes de la comunidad lingüística de la lengua patrimonial. Al aceptar que cualquiera de ellas les dota igualmente de una identidad social, se abandona aquella que ha llegado a hacerse socialmente innecesaria, considerándose progresivamente ridículo su conocimiento o uso, con lo que la sociedad se desplaza, en el siguiente paso, de nuevo a la situación 1, pero ahora como parte integrante de la comunidad lingüística que la ha asimilado, desnaturalizado y desintegrado. (Sánchez Carrión 1991: 315).

geu eta orain erakusten ari garen bezala. Euskaldun izateko borondatea ez dute behin betirako desagertarazi lortu eta horrexek mantentzen gaitu bizirik gaur eta hemen.

Bertako barietatearen berezko erabilerari buruz zertxobait esan ondoren, jarraitu egingo dugu aurrera bertakoaren erabilera kulturalaz historian zehar esan daitekeena azaleratzen. Ez da asko.

Gaur egun euskara “batua” esaten zaiona oraindik ere hasberritan egin egiten ari den zerbait baldin bada, pentsatzekoa da bertako barietatearen estandarizazioa oraindik ere larrubiziago egongo dela. Ez da komeni ahaztea euskaldungoaren gutxi-gutxiengo kualifikatu bat baino ez dela izan historian zehar euskara erabili izan duena zeregin formal-kulturaletarako.

Gehiengoaren kasuan ez da arazoa mugatzen alfabetatu gabe egotera, hori baino larriagoa da: jakin egin behar dugu eta behar den moduan baloratu oraintsu arte oso euskaldun gutxi zirela imajinatu ahal zezaketenak euskarak zeregin formaletarako balio dezakeela, hau da, ez duela hizkuntzak berezko ezintasunik; aitzitik, hiztunek osatzen duten komunitatearen gaitasun falta hori dela ezintasun horren arrazoi eta ez euskararen ezelako berezko defizitrik.

Honela, bada, gutxi izan badira, orohar, euskaraz idatzitakoak, are bakanagoak izango dira gure bertako barietatean idatzitakoak. Garibai, Juan Carlos Gerra, Sebero Altube edo Jokin Zaitegik, bazuten, nork bere sasoi historikoan, euskararen balio kulturalaren berri, eta saiatu ere egin ziren beren buruak trebatzen euskara papere-ratzeko. Ahalegin konsziente egin zuten gutxi horietakoak izan ziren aipatutakoak, eta ez nolana hiko gizonak gainera. Edozein modutan, ez da sobran egongo gogoratzeko euskaraz alfabetatzera iritsi diren gure aurretiko guztiak, lehenik eta behin gaztelaniaz eta hizkuntza klasikoren batean askotan (Latina, Grekoa) hasi direla alfabetatzen eta beranduago euskararekin hasi. Ez da, beraz, harritzekoa izango, lurralde euskaldunetako idazle gehientsuenek egin ohi zuten eran, gure herrikoek ere euren produkzio idatziaren gehiena erdaraz osatzea eta euskarazko lanak gutxiago izatea; salbuespen eredugarria(k) ere bad(it)ugu, ordea: Jokin Zaitegi, euskarari jakintza-eremu berriak zabaltu guran bidea egiten hasi zena beti euskaraz jokatu. Gogora dezagun *Euzko-Gogoa* aldizkariarekin hasi zitzaigula Zaitegi atzerritik euskarazko aldizkarigintzaren lehen urratsak ematen 50. hamarkadaren hasierarekin batera. Barrutia antzerkigilea eta Loramendi olerkaria bera ere ezin aipatu gabe utzi euskarazko produkzioari bagagozkio.<sup>2</sup>

Paradoxiko samarra dirudien arren, bertako barietatean jasotakoak dira, dirudie-nez, Garibaik banderizoen arteko gatazkak zirela eta bildutako erromantze epikoak, euskaraz ezagutzen diren testurik zaharrenetarikoa; eta, halaber, dakigularik bederen, pasarte labur bat edo beste ez bada ez da apenas ezer idatzi XX. mendearen bigarren zatira arte “Mundrauko euzkelgian”, Barandiaran’dar Salvador S.J.-k *Euzko Gogoaren* orrietatik 1955. urtean “Lurreko piztien etiketak” kaleratu zuen arte. Apenas dago ezer dakigunez, beraz, nahiz eta derrigorrezkoa den miatu beharrekoak

(2) Arrasateartzat ere jo genitzake Loramendi eta Barrutia. Lehena, Bedoña auzoan jaioa, garai hartan Aretxabaletako udalerriri zegokion arren, eskolatu Arrasaten eskolatu zen poeta. Barrutia antzerkigilea, berriz, Aramaiokoa, Arrasaten aritu zen idazkari lanetan urte askotan.

miatu —Jose Letonaren artxibategiak berak eman lezake zerbait— eta dagoentxo hori ezagutzera ematea.

Altubek 1948an Baionan irakurri zuen hitzaldian, bada pasartetxo bat Arrasateko euskarari, erdaraz emandako hitzaldian honako sarrera honen bidez kokatzen duena: “Reproducimos sus palabras en el euskera en él habitual [bere aita-puntakoa, Miguel de Madinabeitia, Arrasateko idazkaria]; así ofreceremos de paso un pequeño espécimen de la variedad vizcaina del habla mondragonesa o arrasatearra”.

Etxattak gustétan, eskuera gora eskuera berako zerok; karlista'pe olaxe así zittuan gerria gertaketan ziarduenian, eta ara zer ekarri uskuen, Euskalherri guztia galdu ta ondatu. Euskerie bizikok olako zer bare pe, oiñ arte bizi izan dan lez (Altube 1949: 186).

Ez zitzaion seguru asko “pequeño espécimen” espresioa besterik gabe aterako, askorik eginda ez dagoen tokian horixe ari zela egiten ondo zekien eta. Euskaldunen aurreritziari dagokienez ere, badu interesgarritasunik pasartetxoak.

Eta aztarnak aipatzen jarraituta, hunkigarria da benetan, Jokin Zaitegiren ama zenak semeari itsasoaz bestaldera idatzitakoa. Testuaren balio linguistikoa baino deigarriagoa da balio funtzionala: ezin semeari erdaraz zuzendu eta, txarto edo ondo, esatekoak euskaraz esan.<sup>3</sup> Ez du gehiengo den euskaldun alfabetatugabeak halako jarrerarik oso sarritan erakutsi; ohizkoa izan da, egoera desorekatuaren islada, ahoz inoiz erabiliko ez zen hizkuntzan idaztea baita oharrik txikiena ere etxekoei eta gertu-gertukoei.

1970. urteaz geroztikoa da idatzi izan den apurra. Ez daukagu, beraz, ezelako eredu “klasiko”rik ezelako literatur-generotan. Negarra baino gehiago konstatazioa da aurreko afirmazioa. Ez dagoen tokitik ezin atera.

## 2. Bertakoen aurriritzi linguistikoez

Izan dena —eta badena—, zoritxarrez, beste zerbait da, autoestima falta. Nekez entzungo dugu berrogei urtetik gorako baten ahotik Arrasateko “euskerie” ona danik, gehiengo handiak ez du halakorik uste eta. Horrek ere badu bere arrazoiak, antzinatik datorrena, bertan jaiotakook belaunaldiz belaunaldi gureganatu duguna gura barik ia. Argi dagoenak adibide handiren beharrik izaten ez duen arren, bat edo

(3) Arrasate, 24-10-71.

Nere seme maitea maitia Joaquin: Sembat dempora sure eser jakin bare baña tira acordau sara nire egunian. Esker asko ba estakisu se posik artu nuen nik. Estakit sembat urte diran larogeita 11 edo 12 eta emen triste ba S. Andres egunian urte bi daros mesatik natorrela escalleran jausi eta esin calera urten. Enas gausa, batek errekaduak egiten dust. Segundo Plasentziako Ospitalean dago; oso gaiski egonda tension dauco; oiñ obeto dala esan leike.

Nire egunian eruan ninduen Udalara Meza Santua entzutera eta gero Arechabaletara baskaltzera Juan Mari, Segundo, Eduarne bere gisonagas, Arantza bere gisonagas eta nescatilla chikias benetan ederra. Eduarne eskon barri da junio 9 eskondusan. Echean komuneko tuvo goitik bera ipiñi dira ba apurtuta eusen eta oiñ contua pagatzeko falta. Juan Marik 9 milla baña gutzi da eta estakit nora juango nasen ba emen gausia oso garesti dago eta esgata alleguetan iñorabe. Suk eukiko baseu pagatzeko artuko nuke. Bueno Joaquin, esan dutsut dana orain suk erantzun aguro ba desietan nago serbait jakiteko. Negua gañean otzak eta atzera larri emen. Agur Joaquin bestebar arte edo ikusi arte sure amaren lastan aundi bat. Francisca. (Vélez de Mendizabal 1981: 26).

beste jartzen hasita, bada pasarte interesgarri bat 1859koa, Aita Uriarte bizkaitarrak Bonaparte Printzeari idatziriko eskutitz batean agertzen dena. Leintzaldeko egoeraz ari dela horrela diotso:

Sucede en todas estas poblaciones que miran con desdén el vascuence de Vizcaya y son muy apasionados al dialecto del beterri: los sermones y pláticas se predicán en ese dialecto de Beterri, y muchísimas personas hacen estudio de este dialecto, por cuyo motivo hacen una mezcla; pero todavía no han podido "guipuzcoanizar" al vulgo.<sup>4</sup>

Jakinekoa denez, euskalkien mugek erlazio zuzena daukate antzinatean leinu ezberdinek populatzen zituzten lurraldeen banaketarekin. Arrasatekoak karistiarrak ginen Deba bailararen gainerakoak bezalatsu. Karistiarrak ginenez, bizkaieradunak, beraz.

Elizbarrutiari dagokionean XIX. mendera arte Kalagurriko gotzaiaren agindupean egon izan dira karistiarren zonaldeak, mende horretan Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba artean Gasteizko elizbarrutia osatu zen arte. Gipuzkoarrak gara administrazioari dagokionez baina ez gara "giputzak" euskalkiari dagokionean. Gure kasuan ere muga administratiboak eta hizkuntzarenak (lurrarenak) ez datoz bat, eta horrek berorrek utzi du aztarnarik gure autoirudian: inorena beti hobea gurea baino. Gipuzkoako beterrikoak, batez ere, eta Markinaldekoak izan dira gure aurrekoen oniritzia jaso izan duten barietate geografikoak, beti ere norberarenaren kaltetan. Izan ere, goraipamenak berarekin ekartzen duenez era bateko edo besteko gaitzespena, gure kasuan geurea izan da atzetik geratu dena, "eibartarrak txarrago eitten juek" batek baino gehiagok benetan sinestu eta esan esaten duen arren oraindik ere autodefentsa mekanismoak martxan jarrita.

Norberaren barietatearekiko autoestima falta horren frogak edonon ikus ditzakegu oraindik ere eguneroko gauza txikietan:<sup>5</sup> beste eskualde batzuetako jendearekin tratuan, idazkeran bertan,... Zer pentsatuko zuen jendeak, ba, herriko parrokoak berak, "drinbili eta dranbala, burdiña zarra bezala"<sup>6</sup> egiten zutela berba mondrautarrak esaten bazuen?

Gure eskualdean azken mendeotan jaso izan den euskararen eredu kulture bakarra gipuzkerarena izan da. Idatzi ere, euskaraz aritu direnean, gipuzkera aukeratu dute gehientsuenek. Aita Uriarte bizkaitarrak esan bezala, beraz, "son muy apasionados al dialecto del Beterri".<sup>7</sup>

Sebero Altuberen idatziei esker jakin ahal izan dugu Resurrección M<sup>a</sup> de Azkue mende hasieran Arrasatera etorri predikatzerara eta gertatu zitzaiona. Adierazgarria benetan:

El siguiente sucedido, rigurosamente exacto, revela claramente el prestigio particular que ha alcanzado en los pueblos que nos ocupan, el euskalki extraño considerado como oficial.

(4) Horrela esaten zion Aita Uriartek Bonaparteri 1859ko urtarrilaren 4an idatziriko gurutuan.

(5) Amaia Jauregi-Arraburuk, esate baterako, horrela esaten zuen Arrasate Pressen 18. zenbakian:

(...) beste barzuk (eta hau aitzaki xelebrea benetan) Arrasateko euskera ez dela polita eta ez duela merezi horrela hitz egiterik (...)

(6) Larrañaga, J. *Don Jose Maria Arizmendi-Arrieta*. 61. or. Aipatu parrokoa Don David Esnal irundarra zen.

(7) Aita Uriartek, Bonaparte printzearen laguntzaileak, idatzia 1859an.

Ocurrió también en Arrasate (Mondragón), hace unos 20 años, el día de San Juan, patrono de aquella villa y de la iglesia parroquial del mismo nombre.

Era en aquella sazón Párroco y Arcipreste de Arrasate, el por todos querido y admirado Don Joaquín de Arín; era muy amante del euskera, idioma que lo hablaba, predicaba y escribía con extraordinaria soltura y perfección.

Hacía ya varios años que el Sr. Arín en su afán de dar el mayor realce y solemnidad a las funciones religiosas de los días patronales, invitaba, para predicar en la misa mayor, nada menos que al Presidente de la Academia Vasca, el Sr. Azcue, gran amigo del invitante.

El año en cuestión, el que escribe estas líneas se hallaba, durante el sermón del Sr. Azcue, mezclado con otros fieles, frente al púlpito y cara a cara con el predicador.

Debido sin duda a esta circunstancia, el Sr. Azcue, inconscientemente y obedeciendo a un reflejo instintivo, comenzó a predicar en el habla que empleábamos, tanto él como yo, en nuestras conversaciones corrientes, o sea, en el euskalki vizcaino.

Hacia la mitad de la peroración, cayó en cuenta de lo que creyó imperdonable distracción, por lo que, interrumpiendo el sermón por un momento, se disculpó ante los oyentes y prosiguió su labor en el "lenguaje oficial", en puro guipuzcoano (Altube 1949: 203).

Garrantzikoa den beste datu bat ere jaso dezakegu Altuberen lumatik.

Toda la predicación y demás actos religiosos en las iglesias de los guipuzcoanos de habla vizcaina se efectúan, pues, con pocas excepciones, en el euskalki guipuzcoano, y esto basta para que los habitantes de dichas zonas, como queda dicho, lo entiendan sin dificultades, lo hablen pasablemente y, lo que es más interesante, lo prefieran en los libros de misa, en la Doctrina Cristiana y en toda clase de lecturas (Altube 1949: 203).

Era Altuberekin ari garenez, bere aportaziorik handiena euskararen estandarizazioaren inguruan egin zuen gizontzar handi harekin oroitzean, esatekoa da uxatu egin nahi zituela maileguen erabilera zela-eta sortzen ziren aurriritzi negatiboak. Bizitzaren azkenetan, 1960. urtean "Eibartarrak eta Euskara" izeneko artikuluxkan ezin du garbiago esan:


Ez lotsatu, beraz, eibartar maiteok, ezta beste euskaldun guztiok ere, onela edo bestela itz egiten dezuela dirautsuenean (Altube 1960: 63).

Beste euskaldun guzti horien artean bere jaioterrikoak gogoan izango zituen, jakina.

Esandakoak gogoan hartuta, ondoriozta daiteke, bizkaieraren eredu kulturalak ("bizkaiera batua" esaten jako?) ez digula eskualde honetakooi askorik esaten. Arrazoiak arrazoi, ez dira asko izango bizkaieraz alfabetatuta lehenbizi, gero batuarainoko bidea egin dutenak gure eskualdean; ezin da honetan, gurea, bizkaieraz egiten den beste zonalde batzuekin berdindu. Honela, bat nator ni neu ere Juan Martin Elexpurrekin, zera dioenean dagokigunaz une honetan: "Ez digu askotzarik balio

bizkaiera batuak. Gure eskualdeak harreman gutxi izan du bizkaiera ofizialarekin, lehen gipuzkera eta orain batua izan bait dira gure erreferentzia kulturalak”.<sup>8</sup>

Laburbilduz: Hizkuntzen ordezkapen prozesua erabilera kulturalerako esparruak ez zabaltzetik etorri ohi da. Hasiera batean maioritarioa dena minorizatzen hasten da eta apurka-apurka minoritario bilakatu ... desagertzera. Arlo formaletan moldatu ahal izateko erregistro linguistikoak norberaren berezko hizkuntzan landu ahal ez izatearen ondorioz abiatzen dira ordezkapen prozesuak, gerora lekua jaten jarraitzeko berezko hizkuntzari gero eta gizarte-eremu zabalagotan, gero eta funtzio intimoagoetan, modu honetara transmisioa ukatzeraino iritsiz eta horrela ordezkatze-prozesuari amaiera eman (Sánchez Carrión 1991: 97).



1. Kuadroa

Honela, bada, bertako barietatea gaztelerak ordezkatzearen prozesua kualitatiboki mende asko hasia dela esan genezakeen arren, esatekoa da, halaber, kuantitatiboki ez dela bizkortu eta azeleratu mende honen hasierara arte. Zenbateraino ez zen azeleratuko ordea, batez ere gerra ostean, ezen oraindik norabidea aldaraztea ere ez baitute lortu azken bi hamarkadetako ahalegin guztiek geroago ikusiko dugun Kenk indizearen erradiografiak adierazten duen moduan (-1,56).

Honela, bada, gaurko egoera hasiz gero alderatzen iraganekoarekin, bi konstante nabarmentzen dira: berezko erabilera ahulduz doan moduan eta berarekin bertako barietatea desitxuratzen, halaber eta aitzitik, motibazio konszientea hasiz doa eta modu horretara kualitatiboki euskaldungoa askoz ere gaituago dago inoiz egon izan dena baino. Gogora dezagun, bidenabar, bi konstante horien batuketa dela hain zuzen hizkuntz kontzientziaren definizioa Txepetxen eredu teorikoan: berezko erabilera eta motibazio konszientearen batuketa. Lehen bazen lehena baina bigarrena falta zen; gaur, uztartu egin behar ditugu biak bestela herren jarraituko dugu.

(8) Juan Martin Elexpuruk idatzitako *Deba Arvoko bizkaierazko herri-euskeraren idatz arauak* txostenetik jasoa.



### 3. Atariko demolinguistikoak eta tipo linguistikoen optimizaziorako irizpideak

1986ko errolda datuetan oinarrituta argitaraturiko *Soziolinguistikazko mapa*n, honako hauek dira Arrasateri dagozkion zifrak.<sup>9</sup>

Indizeen taula

	Biztanle- kopurua	Euskal- dunen ehunek.	KENK indizea	Gal- -indarra 1	Gal- -indarra 2	Eursi- -indarra	Ahozko erakar- -indarra	Idatziz erakar- -indarra	Gara- -indarra
<b>DEBA BEHERA</b>									
Deba	4.829	78,38	2,34	1,17	3,78	94,63	27,66	16,47	77
Eibar	34.537	44,14	-4,54	2,04	10,33	85,48	4,96	2,93	42,50
Elgoibar	12.346	53,08	-0,59	0,73	3,94	92,87	6,79	4,11	61,17
Mendaro	1.581	71,26	1,28	0,28	0	98,16	8,58	5,79	85,64
Mutriku	4.628	85,68	0,85	0,87	10,28	98	15,89	5,05	85,68
Soraluze	5.277	55,12	0,02	1,27	10,84	93,84	7,75	3,55	62,20
<b>BERA GARAI</b>									
Antzuola	2.130	65,84	2,76	0,39	4	98,15	11,52	4,01	63,81
Aretxabaleta	6.005	56,02	1,21	0,27	1,95	95,83	8,38	3,58	56,35
Arrasate	26.367	42,73	-1,56	4,79	11,84	86,87	7,89	4,58	56,55
Bergara	15.718	65,90	1,82	0,76	6,18	94,82	14,26	7,58	66,54
Elgeta	1.041	85,29	1,30	0,12	2,56	98,94	14,63	5,48	36,35
Eskoriatza	4.004	50,27	-4,42	0,73	17,03	89,55	2,96	1,19	55,88
Leintz-Gatzaga	207	78,67	0,40	0	0	96,77	11,90	2,38	58,70
Oñari	10.884	76,27	1,79	0,23	5,22	97,61	14,48	5,62	50,18

#### 2. Kuadroa

Datuak emanda, berauetan sakontzeko tokirik aproposena ez den arren, begibis-tako ondorio batzuk ateratzea ezinbestekoa da.

— Ehuneko 15etik gora dira Arrasaten jaiotakoak eta ama hizkuntza modura euskara bakarrik izanda (Gal indarra 1) edo euskara eta gaztelera aldiberean izanda (Gal indarra 2) hitz egiteko gaitasuna galtzeraino iritsi direnak.

— Euskara ama hizkuntza modura izan zutenetatik %56,55 dira behar den moduan alfabetatuta ikusten dutenak euren burua (Gara indarra) eta %86,87koa da ama-hizkuntza modura izanda 1986an hitz egiteko gauza zirela ziotenen portzentaia (Eutsi indarra).

— Ia-euskaldunen portzentaia benetan da adierazgarria. Bi eratako pertsonak biltzen dira hor: ama-hizkuntza izan gabe ikasten ari direnak eta noizbait hobeto jakin izan dutenak eta galtzen ari direnak. Prozesuaren norabidea markatzen dutenak dira, multzo hauek norantz jo halakoa izango baita hizkuntzaren egoera soziala gerora.

(9) *Soziolinguistikazko mapa* izeneko azterketa demolinguistikotik Deba Bailarako herriez ateratako informazioa. "Adorez eta Atseginez" mintegiaren eskutik 1991n UEUren argitalpen sailerako, "Gazteen euskara: gastu izaterik irabazia izateraino" artikulutik jasoa, nik neuk Txepetxekin batera eginikoa eta "Giro Urbanoko gazteak eta euskera" lanaren post scritum-a dena.

— Kenk indizea negatiboa izateak (-1,56) adierazten digu, besterik gabe eta begirada batean, norantz doan herria gaitasun linguistikoari dagokionean. Negatiboa izateak adierazten digu, besteak beste, gehiago direla euskara galdu dutenak, haurtzarotik izan gabe ikastera iritsi direnak baino.

— %7,89 dira “euskaldun berriak” izenarekin ezagutzen ditugunak, euskaraz hitzegiteko gauza direnak, eta %4,58ak euskaraz idazten badakiela dio nahiz eta ama hizkuntza euskara izan ez.

Ahalegin bat eginez gero *Soziolinguistikazko mapako* datuak eta Txepetxen teori-zazioaren tipo linguistikoak elkarrekin uztartzen, honako irakurketa hau egin daiteke, beti ere tipo linguistikoaren optimizazioa dugula begibistan.

### O pertsonak:

Bi eratakoak izan daitezke: edo etxean jaso gabe eskolaratzean euskara ikasten hasteko moduan direnak, edo, haurtzaroa pasata, ibilbide kulturaletik abiatu behar dutenak motibazioa kontziente batek eraginda.<sup>10</sup>


Lehenengo kasuan herriko barietatea izan behar da euskararako sarrera berezko erabilera nahikoa ziurtatuta; bigarren kasuan, berriz, batua da euskarara hurbiltzeko lehen pausua, gerora bertakoa bereganatuz joan ahal izateko.

Arrasaten bizi garenon erdia batzen da multzo honetan: lehenago adierazitako gal-indarra (%15) eta kanpotik herrira etorritakoak batez ere 60. hamarkadan.

Egun, euskarazko irakaskuntzak, kalitate onekoa izango bada, ziurtatu egin behar du haurrek erabili egiten dutela euskara, eta, bistakoa denez, hori ez da eskolak berak bakarrik egin dezakeen zerbait. Era askotako baliabideak jarri behar dira martxan. Denborak esango du ea euskaldun aktiboak atera daitezkeen adinako kalitate-terik izan duen hezkuntza-sistemak eta gizartearen eraginak; edo, aitzitik, euskaldun pasiboak egitera mugatu garen, ulertu bai baina hitz egiteko erosotasunik sekula lortuko ez duen jendea. Euskal komunitate batek bidea zabaltzeko egin behar die non integratu izan dezaten.

Proiektu integratzailea izaki, ez digu batere mesederik egingo geure diskurtsoa eraldun eta erdararen kontra altxatzeak, pentsatzea etorkinak direla gure gaitzen eta ezintasunen iturri. Gehientsuenok hori ikasia izateko ordua dela ematen du, baina ez da falta, zoritxarrez, arazoa desbideratu eta hurbil baino urruti gurago

(10) Ikaskuntza faktoreen diagrama erabiliz, honela adieraz liteke:



lituzkeena. Ezin ahaztu, hala ere, badirela bestelako interesatuak ere, erdaldunak xaxatu egiten dituztenak euskaldungoa areriotzat har gaitzaten, diskriminazioaren mamuari bide eginez.

Hobe dugu pentsatzea euskarara inoiz hurbilduko ez direnak ikasteko adina grina izango ez dutelako, horiek ere askozaz lagungarriago izango zaizkigula alde izanda kontra egiten hasita baino. Ez dezagun, behintzat, -0 diren apurtxoak bildu eta erasotzen has daitezen utzi. Geuk ibili behar dugu argi aurrea hartzen utzi barik. Bestalde, gurea bezalako egoera batean, seme-alabek izan behar dute gurasoen motibazioa berritzen eta sendotzen joango direnak aldi oro, baldin eta alderantziz ere gertatuko bada.

(A) *pertsonak*:


Esan gura da berezko prozesutik euskara ikasten ari diren haurrak direla, edo euskara galtzen ari diren helduak. Azken hauek, herrikoak bai betidanik baina berba euskaraz gustora egitea zer den ezagutu ez dutenak, kostata aritzen direnak derrigor-tuta ikusten dutenean beren buruak.<sup>11</sup>

Edozertarako askoz ere gaitasun linguistiko hobea daukate erdaraz euskaraz baino. Erdaraz ibilaldi luzeak egiteko gauza dira eta euskaraz, ordea, oztopo-lasterketa moduko batean dabiltzala ematen du. Edozelan ere, motibazio aldetik ez dira euskararen kontrakoak izaten, ezta gutxiago ere: seme-alabentzat gura izaten dute euren-tzat praktikan eskuraezina iruditzen zaiena. Erdararen inertziari ez diote aurre egiten eta, nahi gabe ere, gezur sozialaren transmititzaile izaten dira. Euskara txakurrekin eta umeeekin berba egiteko dela esaten denean era honetako jendearen hizkuntz gaitasunaren irudikapena egiten da.

Euskaldun osoak egon ezinean komunitatearen erdigunean, tipo linguistiko honetakoak izan dira nagusitu direnak herri mailako botereguneetan, eta eurok agertu mondrautasunaren erakusgarri. Esan beharrik ez dago euskal komunitatearen interesetarako oso kaltegarria dela gune sinboliko hori euskara ozta-ozta dakien jendeak betetzea — edo hobeto jakinda ere jakingo ez balu moduan jokatzten duen jendeak betetzea. Gune sinboliko hori da eta, hain zuzen, euskaldun osoei betetzea dagokiena, oraindik ere euskaraz bere gaitasuna osatzeko ahalmena dutenei bideak erreztuz eta horretara bultzatuz.

Izan ere, euskara galduaz joan direnetariko asko, kontrako norabidean, irabazten

(11)



hasteko moduan daude baldin eta erabilera areagotzen saiatzen badira, eta horretan lagundu egingo die euskal komunitatea egituratuta izateak; erreferentzia eurok izan gabe euskaldungo osotua (eta osatua) bihurtzea.

#### A pertsonak:


Euskaraz berba egiteko ondo moldatzen direnak baina euskaraz alfabetatu gabe dauden pertsonak. Euskara harreman informaletarako hizkuntza modura erabiltzen dutenak intimitateari dagozkion funtzioetan (senideak, lagunartea,...).<sup>12</sup>

Euskaraz eskolatzen ari diren haurrak, oraindik ere ikaskuntzaren prozesu kulturalari — B — ekin gabe daudenak sartzen dira multzo honetan, eta baita euskaraz eskolatu gabeak izan arren euskaraz hitz egiteko gauza diren gazteak eta helduak.

Azken hauen artean, helduen artean, izango dira nagusi oraindik ere harreman informaletarako euskaraz hobeto moldatzen direnak, barne-pentsamendua euskaraz bideratzen duen populazioaren multzorik adierazgarriena berorien artean baitago. Egun Arrasaten bizi diren hauetariko asko inguruko baserri-auzoetatik kalera etorritakoak dira lehenago edo beranduago.

A multzo honetakoak izango dira, bistakoa denez, herriko bariatetari buruzko eredurik fidagarriena emango digutenak, berezkotasun eta etorri gehien daukan jendea berau da eta. Badute zer irakatsi ezelako dudarik gabe, baina ezin dugu gizamultzo hau berau ere komunitate linguistikoaren erdigunean jarri eta euskaldunaren "prototipo"tzat aurkeztu.<sup>13</sup> Aspaldiko irudiak eguneratuz, gogora dezagun etxeko zapatilak jarrita ibiltzeko euskara baino ez daukana ezin dela XXI. menderako eredu modura hartu eta mitifikatu. Alfabetatu gabeak izanagatik euskaraz, badute, hala ere, egitekorik normalizazio prozesu batean, egiteko berezia, eurok beste inork baino hobeto bete dezaketena.<sup>14</sup>

(12)



(13) 1985. urtean Eibarren buruturiko *Euskara Euskalkiak* izeneko jardunaldietan, honakoa esaten zuen Erramun Baxok-ek:

Lehen erdaldunek apaltzen zituzten euskaldunak. Orain euskaldunak ari dira kulpabilizatzen, esanez heien euskera ez dela egiazko euskera. Hala jokaturaz, etnozidio kulturala akulatzen dugu. Behin betikotz jakin dezagula, jatorrizko hiztunek daukatela "konpetentzia" eta euskaldun zaharrak ez badira euskaldun, ez da euskararik, arima gabeko "euskeranto" hil bat baizik (Baxok 1986: 135).

(14) Erramun Baxok-ek berak esaten zuen aipatu jardunaldietan honako hau ere:

Berriz ere azpimarratu nahi nuke hizkuntza naturalaren indarra. Hizkuntza hau da egiazko herri hizkuntza, lurraldeetan barna bere erroak sartua dituen. Familia hizkuntza, hizkuntza afektiboa da, nortasunak eraiki ditu eta familiaren barneko eta familien arteko lotura da (Baxok 1986: 135).

Inertzia guztien kontra eta sasoirik beltzeneran euskarari atxekituta bizi izan direnak eredu imitagarri ditugu, guztiok daukagu berauen berezkotasunetik zer ikasi, eta ez bakarrik hizkuntz-erregistroari dagokionean.

*A(B) pertsonak:*

Berezkotasuna gordetzen dutelarik euskaraz, kulturizatzen ari direnak izan daitezke, edo, bestalde, zeregin kulturaletarako erabiltzen ez dutelako galtzen ari den jendea. Erdaraz ikasita, edade batetik aurrera alfabetatzen hasten den jendea; edo, euskaraz ikasita, lan munduan euskaraz aritzeko aukerarik ez izateagatik galtzen ari dena gaitasun linguistikoa. Lehenak irabaziak dira eta bigarrenak galerak, nahiz eta bigarren multzokoak gaituago egon.<sup>15</sup>

AB izateko erdibidean gera ez dadin giza multzo hau, areagotu egin behar dute euskararen erabilera kulturala, beti ere motibazio pertsonal bati erantzunez; eta badakigunez, ingurugiroak azkartu edo moteldu egin dezake motibazio inteligentea. AB direnak zenbat eta gehiago izan eta zenbat eta elkartuago ibili orduan eta errazagoa izango da A(B) direnak momentu batean hurrengo optimizaziora iristea.


*AB pertsonak:*

Euskal komunitatearen baitan gaitasun linguistikorik gehien daukatenak, eta hizkuntz kontzientzia garatuen eduki behar dutenak. A direnengandik berezkotasunari dagokionean badutela zerikasi aipatu da lehenago, baina bakoitzari berea emanez, gogoan izan behar dugu askoz ere gehiago dela A multzokoek AB multzokoengandik jaso dezaketena alderantziz baino. Komunitatearen erdigunean ez daude A-koak —ez dute egon behar— AB talde soziolinguistikoak baizik.

AB-ak dira tiratu egin behar dutenak eredu imitagarri bihurtuz; berauei eman behar zaie gizarte mailan euskararentzako daukaten hainbateko garrantzia, onartu eta baloratu egin behar zaie komunitatearen barruan jokatu behar duten espazio nuklearra. Ez dira zorokilo bitxiak, herri honek dauzkan bitxirik preziatuenak baizik.

Berauek dira BA talde soziolinguistikoarekin batera herriko euskaldun osoak. Eta honaino iritsita, ez dago luzatu beharrik esateko euskaldun osoa ez dela kompetentea dena bakarrik. Izan ere, kompetentzia uztartzen ez duena koherentziarekin kon-

(15)



tzientziaren bidez, bankilloaren hiru hanketako bati zati bat apurtuta moduan ibiltzen da: beti loka patxadarik hartu ezinean.<sup>16</sup>

Horregatik da horren garrantzitsua AB modura jokatzeko gertu daudenak elkarren inguruan ibiltzeko bideak egitea, tinko jokaruta euskararentzako funtzio berriak (berr)eskuratzen joatea; modu horretara, euskararen alde ezezik geure alde ere jokatzen ari garela somatuko dugu eta (euskararentzako ona dena gutariko bakoitzarentzako ona eta gratifikagarria ez bada, hor zerbait ondo ez dabilen seinale).

Txepetx-en eredu teorikoarekin jarraituz, ikus dezagun, azkenik, ama hizkuntza modura eduki ez eta eskolan ikasteko aukerarik izan gabe, euskararen ikasketa prozesuan abiatu den giza multzoaren graduazioa euskararen baitan.

*B pertsonak:*

Gaztaroan edo heltzaroan hasita, motibaziotik abiatzen direnak ikasketa prozesuan. Era askotakoak izan daitezkeen arren motibazioak, ikasketa prozesuan aurrera egiteko adina indar daukatenak izango dira balio eta lagunduko dutenak.<sup>17</sup>


Bideari ekin eta segituan nekatzen direnak askotxo izan ohi direnez azken urteotan, galdetzekoa litzateke ea euskaltegiek ze eratako plangintza duten erata ikaslegoaren motibazioa aktibatzeko, honez gero konturatuta dago jendea gramatika eta klaseko barriketalditxoekin bakarrik ez dagoela hizkuntza bat ikasterik eta. Garrantzi handiko gaia da. Euskararen ikasketa prozesua, interes pertsonala izatetik —edozein dela ere— hasiera batean, ikasketa prozesuan eragin egin behar da dimentsio soziala ere beregana dezan ikasleak, lagundu egin behar zaio hizkuntzaren proiektzio soziala ezagutu, estimatu eta barneratzeko aukera izan dezan. Lehenago eskolaren kasuan bezala, euskaltegien kasuan ere irakaskuntzaren kalitateaz kontuak eman beharra dago, eskola-porrotaz hitz egiten den beste hitz egin behar da euskaltegi-porrotaz eta bideak hartu txikitzen joan dadin.

B pertsonak dira, beraz, euskararen eredu kulturaletik abiatuta erabiltzeko gaituta daudenak maila bateraino; ikasketa prozesuan aurrera egingo badute, berezko tasu-

(16) Hirukiaren bidez adierazi ohi dugu lotura. Kontzientziak motibazioarekin du zerikusia, kompetentzia ezagutzarekin eta erabilera koherentziarekin. Ikusten denez, kompetentziak uztartzen ditu kontzientzia eta koherentzia.



(17)



nera, arlo informaletara, intimoagoetara egin beharko dutenak jauzi, eta prozesu horretan, hain zuzen, aurkituko diote herriko barietateari erabilgarritasuna.

*BA pertsonak:*

Ibilbide kulturalari berezkoa batu diotenak. Arlo formaletan batuarekin eta informaletan herriko barietatearekin (azpi-euskalkiarekin) moldatzeko gauza izateraino iritsi diren euskaldun bertakotuak.<sup>18</sup>

AB pertsonak, lehen esan bezala, baldin badira euskararekiko erabilerari begira eredurik onenak, BA-k dira, halaber, motibazioari dagokionean optimizatuen egoteko moduan dauden euskaldun osoak.

Euskararen ordezkatzeko prozesua horren aurreratua ikusten dugula, ez gara askotan ohartu ere egiten AB-ak izatea bere hiztunak berez edozein hizkuntzaren normaltasuna dela, ez daukala horrek extraordinariotik ezer (nahiz eta gure kasuan hori berori ez izan ohizkoena); horregatik da bereziagoa eta konszienteagoa egoera diglosikoaren lainoak baino harantzero ikusteko gauza izan dena eta BA izateraino bidea burutu duena: irabazia da BA hizkuntzarentzat, berez dagokion zerbait AB.

Honaino iritsita, konturatuta gaude denok AB eta BA direla idiak, gurdian doazen gainerakoak (A, B eta 0) garraiatzen dituztenak. Norantz ote doaz, baina? Zein da idien aurretik doana? Idiak bat datoz ala bakoitzak bere aldetik joan gura du?


Ahalik eta prisarik txikienaz, arnas estuka ibili barik, tapa-tapa joan doazenak egin ohi dutenez bidea samurren; geu ere, herri bakoitzean gurdian zer daramagun ohartuta eta biderako otorduak ziurtatu ahala, has gaitezen aztertzen ea ze bide daramagun eginda eta has gaitezen erabakiak hartzen hobetu beharrekoak hobetzeko; beti ere martxan goazela, jakina.


**4. Batua ala herrikoa? edo... herrikoa eta batua?**

Galderari erantzuten hasi ahal izateko lehenik eta behin saia gaitezen behar den moduan kokatzen. Txepetxeren eredu teorikoak lagundu ahal digu berriro ere (Sánchez Carrión 1991: 105).

Diagramari jarraituz, herriko hizkeraren definizioa horrela ematen du autoreak: “el mínimo común divisor entre hablas locales palpables que comparten las suficientes isoglosas comunes como para crear entre sus naturales la sensación de pertenencia a una misma comunidad regional” (Sánchez Carrión 1991: 94).

(18)





3. Kuadroa

Gogoratzekoa da, bizkaieradunak izaki, gipuzkoarrak eta arabarrak izateak administratiboki, eragin egiten duela geure buruari buruzko autopertzeptzioan lehenago ikusi bezala.

Funtzioak teilakatuta daudenez, eredu estandarrak batu egiten ditu bere baitan azpiko guztiak. Ez daude elkarrengandik aparte, bata bestearen barruan baizik. Bakoitzari egiteko bat dagokio berez.

Normalean, paralelismoak egiten hasita, batua idatzizkoarekin lotzen da eta herrikoa ahozkoarekin, batua arlo formaletan erabiltzen dena da eta herrikoa lagunarteko giroan erabiltzen dena. Topiko tipikoak dira, mugatzeko eta zedarritzeko zailak, baina egon daudenak.

Zorioneko euskara batuak bidea aurrera egin ahala, berehala somatzen da hurrengo pausua beheragoko funtzioetarako ere lekuan lekuko estandarizazio-prozesuak burutzen hastearena dela. Baina zergatik eta zertarako?

Batuaren egitekoa inork zalantzan jartzen ez duen bitartean, behin baino gehiagotan entzun izan da atzerapauso bat izango litzatekeela jendea batuara moldatzen hasitakoan herrikoa estandarizatzen hasi eta beste eredu bat proposatzea idatzizkorako.<sup>19</sup> Iritzi sakona izan daiteke baina somatzen dugu ez gaituela asetzen asko eta

(19) Aurretik aipaturiko *Euskara Euskalkiak* jardunaldietan Bittor Kapanaga ere han izan zen, eta horra berak esandakoetatik pasartetxo bat harira datorrena, ustez:

(...) euskalkiak dira *euskera batua* zuhaitzaren sustraiak edo erroak, eta hauetatik hartu behar du bizia, hazteko indarra, joritzeko gaia eta irauan ahal izateko odola. Beraz, argiro dago, gaur euskalkiak galduko balira, ez genukeela lortuko funtsezko euskera baturik, eta euskararenak egingo lukela. Bai, hila litzatekeela (Kapanaga 1986: 82).

Bihotz beroz, baina buru hotzez ikertu eta erabaki beharreko arazoa" (Kapanaga 1986: 82).




asko; lehenetasunak lehenetasun, ahoz darabilgun hori paperean lasaitasunez jartzeko norma batzuk behar ditugula gero eta hedatuago dago euskaldun gaituenen artean. Ez da esan gura, besterik gabe erredukzionismoan jausiz, herriko gauza guztietarako, ahozkoetarako zein idatzizkoetarako, herrikoa erabili behar denik. Baina ezta kontra-koa ere: herrikoa ezagutu ezean, hori ez balego moduan jokaturata ere nahikoa dela (idatzizkoan eta baita ahozkoan ere) pentsatzea.

Beharraz jabetuta daudenak izango dira, normala denez, lanari ekiteko interes gehien agertzen dutenak, eta horixe da hain zuzen gauden fasearen ezaugarria: ba-koitzak bere aldetik egiten diharduena, eta egin dezakeena, elkarrekin jartzea. Ezelako antsietaterik gabe baina bidea urratzen jarrita.

Batuarekiko AB eta BA direnen artean, bada ezberdintasunik herriko barietatearen ezagutza-mailari dagokionean: batzuk 0 edo (B) baino ez dira (ulertzen dutenak bertakoa) eta batuarekin moldatu ohi dira zeregin guztietarako. Beste AB batzuk, beste zonalde euskaldun batzuetatik etorritakoak, hainbat BA-rekin batera, bertako barietateari dagokionez A izaten ahalegintzen dira herrikoa ikasten saiatuz egunero-ko bizitzan; eta badira, azkenik, bertakoak izan eta bertako barietatea hobeto ezagutu guran dabilzanak, dagoeneko bertako barietatearekiko AB direnak.

Azkenak dira motibazioari, ezagutzari eta erabilerari begira bideak urratzen hasi behar direnak. Horiek osatu behar dute komunitatean gune nuklearra zeregin horri begira. Oraintxe ikusiko dugun eskemaren hazi-nukleoa osatzen dute.<sup>20</sup>



4. Kuadroa


Hazi-nukleorekin partaideak, bertakotasuna eta herri-eskualde mailako berezkotasunak aurrera atera gura izateak elkartzen dituelarik, hasi egiten dira bi arlotan lanean.

Une honetara iritsita, Einar Haugen-en (1977) estandarizazio eskemaz baliatuz, hasi egin gaitezke mugatzen zeintzuk diren bi arlo horiek.<sup>21</sup>

(20) Txepetxek idatzitako *Bilboko euskaldungoa trinkotzeko estrategia konkretuak*, argitaratugabea, izeneko lanean agertzen den diagrama batean oinarrituta.

(21) Txillardegik emana 1988ko uztailen UEUko ikastaldietan Iruñean.

#### 4.1. Hazi-nukleoaren egitekoa



#### 5. Kuadroa

Einar Haugenen eskemako 4 faseak bi taldetan banatuta, honela bana daitezke lanak:

##### 4.1.1. Hautaketa eta kodaketa:

Helburua litzateke, "actividad de preparar un diccionario, ortografía y gramática normativa para guiar a escritores y hablantes de una comunidad de habla no homogénea" (Haugen 1977).

Aukeran dauden formen artean, jaso, aztertu eta aukeratu egin behar da handik edo hemendik. Deba eskualdea bere osotasunean ezin daitekeenez multzo batean sartu, aztertu egin beharko litzateke zein azpisailkapen egiten den eskualdearen barruan. Zenbat multzo? Zeintzuk izan litezke erizpide amankomunak zonalde guztietarako?

Bonaparteren sailkapenean bi multzo bereizten zituen Deba eskualdeari dagokionean (Elortza 1988: 43):

**BERGARAKOa:** Oñati, Antzuola, Bergara, Elgeta, Eibar, Soraluze eta Elgoibar. (Mendaro, Deba eta Motriku ez dira bizkaieraren eremuan sartzen).

**LEINTZOKOa:** Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Aramaio.

Leintzekoa oso taxuzkoa ikusten dudan eran, eztabaidagarriago litzateke ea Bergarakoen multzoan sartzen diren herri guztientzako bat eta bera izan behar duen normak.

Lanerako faseen denboralizazioari dagokionean, honako hau proposatu ohi da:

- a) Datuak batu.
- b) Egitasmoak proposatu.
- c) Erabakiak hartu egitasmoak direla eta.
- d) Neurri konkretuak gauzatu.

Orain artean, Arrasateri dagokionean bederen, (a) fasean geundeke, azterketarako oinarria izango den datu bilketa egiten.

Formazioz eta bokazioz linguistak direnekin osatu behar da hazi-nukleoaren azpiatal hau. Kontutan hartzekoa da gainera talde honen lana ez dela aldaraztea dagoena, berrian berri zerbait sortzea baizik. Hori dela eta, besteak beste, kontutan hartzeko moduko batzuk honako hauek lirateke Haugen soziolinguistaren hitzetan:

*Comunicación, conveniencia general eta estabilidad del grupo* (Haugen 1977) dira oinarritzko hiru zurabeak. Zutabe horiek, orobat, beste honako hiru erizpideok hartzen dituzte zimentarri:

—*Eraginkortasuna*: “Ahalik eta errazen ahoskatuta ondoen ulertzen dena” ei da “hizkuntza-on”aren definizioa.

Eraginkorra izango da, beraz, ikasteko samurra eta erabilerreza bada aldi berean. Ze eratako iragazkiak jarri beharko lirateke, bada, egon egongo diren eredu ezberdinen artean zein den eraginkorrena erabakitzen joateko? Planifikatzaile onena, Haugen-en esanetan, kodaketa egiteaz gain testua bera ere produzitu egiten duena omen denez, bidezkoa dirudi puntu honetan erreparatzea geure egitekorako.

Edonola ere, ez da komeni gauzak nahastea eta pentsatzea testugilerik onenak izan behar duela, derrigorrez, aztertzaile onena.

Txarra da, horrela, ondo ulertzen ez dena, edo zailtasunez jasotzen dena; baita ahoskatzeko edo gogoratzeko zaila dena ere, eta behar baino luzeago eta korapilotsuagoa dena; modu berean, berrikuntza dena eta aparteko berezirik ez dakarkiona hizkuntzari. Esaldi borobilean esanda: “Precario balance entre la economía expresiva del hablante y la economía de percepción del oyente” (Haugen 1977). “Las pronunciaciones apegadas a la ortografía disgustan a los lingüistas” irakurri dut nonbaiten (Haugen 1977).

—*Egokitasuna*: Honakoa dio Haugenek: “Una forma debe transmitir información que los hablantes desean con el grado de precisión deseado”.

Definizioari jaramon eginez, aztertu egin behar da ea zein eratako informazioa den herriko barietatearen bidez eman gura dena, zeregin horietarako egokitzen joateko. Biografia baten transkribaketa egitea legoke mutur batean, pertsonaren idiolektoa grafolekto bihurtzea; eta beste muturrean, esate baterako, herriko profesio guztietako teknolektoak herriko barietatean osatu gura izatea. Bada non jokatu!

Eskuaratean dugun egitekoan, mailaketa moduko bat egin daitekeela iruditzen zait. Honela gutxi gora behera: lehenik eta behin maila kolokialerako erdua joan garatzen, lagun arteko korrespondentzian edo aldizkarietako foto-inkesta moduko sailetan gauzatzen joan daitekeena, kasu. Norbanakoaren berbetatik urrats bat gora eman, eta gura beste proposamen konkretu eginez, joan testuak berridazten ahalik eta eredurik onargarriena taxutzen joateko. Has liteke gura beste bustidura eta kontrakzioarekin, eta hortik gora eginez proposamen konkretuak eztabaidatu.

Aurreko puntuan komentatzen zen eraginkortasuna lortzeko, herrikoa denez erdian geratzen dena, funtzio hori betetzeko azpikoa (kolokiala) beteta izatea lagungarri izango dela iruditzen zait.

<i>HIZKUNTZ FUNTZIOAK</i>		?
Giza-mintzaira	Funtzio internazionala	7
Zibilizazio-mintzaira	Zibilizazio funtzioa	6
Nazio-hizkuntza	Funtzio nazionala	5
Bertakoa	Funtzio lokala	4
Lanbide-kodigoa	F. Profesionala	3
Barne-hizketa	F. Familiarra	2
Pentsabidea	Identitate f.	1
?		

## 6. Kuadroa

Goitik, batuaren eredua eta azpitik tokian tokiko barietate kolokialena; biak begien aurrean izanda ez litzateke erdibideko horretan asmatzea errazago izango?


—*Onargarritasuna*: “Se opone a la desunión en el interior y a la absorción por el exterior. Se da cuenta de la importancia de la estructura unitaria para la comunicación eficiente, al mismo tiempo que permite la divergencia individual” (Haugen 1977).

Aurreko bien batuketa denez, eta horren intimoak diren norbanakoaren esperientzietatik gertu ibili behar izateagatik, sarritan entzun behar izaten dira “hori ez da hemengo euskerie!” modukoak batera edo bestera egin.

Batuaren berritasunak berak lagundu edo oztopatu egin lezake prozesu hau. Lagundu, batetik, batua bera ez delako monolitikoegia eta horrek berorrek eklektikotasuna damaigulako euskaldunoi arau zurrunegiekin ibili beharrik ez izateko gauza guztietarako. Oztopatu ere egin lezake, ordea. Batua bera berria dela eta, jendeak batuaz ere irakurtzeko ohitura handirik ez duela eta, prozesuari beste zailtasun bat gehitzea litzatekeela pentsatzen duenik ez da faltako.

Edozein modutan, ez da komeni gauzak nahastea, eta oso gogoan izatekoa da hautaketa eta kodaketa faseak burutu behar direla hasiera batean maila bateraino, aldi berean (baino beranduxeago) Haugen-en diagramako hirugarren eta laugarren faseetara pasatzeko, osaketara eta hedaketara.

## 4.1.2. Osaketa eta bedaketa.



## 7. Kuadroa

Hazi-nukleoaren bigarren talde honek, corpora itxuratu ahala estatusen eragiteko eman litezkeen urratsetan erreparatu behar du herrian eredu hedatzen hasi aurretik.

Eredu estandarizatua zabaltzen eta eremu ezberdinetara egokitzen joan dadin, tokian tokiko ageriko-nukleoko pertsonekin egon beharko du etengabeko hartu-emanetan hazi-nukleoko azpitalde honek. Komunikabideak eta irakaskuntzaren eremu zabala (arautua eta ez-arautua) dirateke lehentasunak seguruenik.

Talde honen egitekoa litzateke aurretik aztertu ditugun talde soziolinguistikoen optimizazioari begira eman beharreko urratsak eta ezarri beharreko lehentasunak zeintzuk izan daitezkeen proposatuz joatea. Nola lagundu ibilbide kulturaletik bertakora datozeinei pausu hori errazago ematen? Nola eragin bertakoek etenik soma ez dezaten, continuuma izan dadin, bertakoaren eta batuaren artean?

Funtzioetan gora nola egin da galdera, nola egin gora hiztunarengandik gero eta urrunago gelditzen diren funtzioen balioa eta intzidentzia beheragokoen kaltetan ezarri gabe; baina ezta alderantziz ere: helburu bakartzat herriko euskararena jartzea eta hortik gora ezer ez balego bezala jokatzeko. Horregatik esaten du Haugenek: "La planificación es el arte de lo que es posible y de los modos de ganar el consentimiento de los gobernados" (Haugen 1977). Esatea samurrago da, seguru asko, praktikan denon gustora benetan ibiltzea baino, baina hori baino ez da sokatira honetako erronka: batetik "impulso de inmanencia" eta bestetik "impulso de extracción" ari dira tiraka eta hor arbitroarena egitea ez da erraza, baina horixe da egin behar dena: sokatira horretan zapia ez dadila erdiko marratik kontrako marrara gehiegi urrundu, pasatzeko arriskurik izan ez dadin eta ekitaldia amaitu (eta ez dadila behintzat arbitro erdara izan!).

Herriko euskaldungoaren gaitzak herriko ereduaren estandarizazioarekin amaitzen direla uste izatea bezain kaltegarria litzaziguke pentsatzea hortik pasatu gabe batuara errazago joango dela euskaldungoaren gehiengo alfabetatugabea.

Onargarritasunari begira garrantzizkoa da estandarizatzen hasita dagoen barietate horretan dihardutenen arteko batzuk imitagai izatea ingurukoentzako, prestigioa daukaten izenak eskura izatea; modu horretara, eskuragarria den neurrian aitzindari hauen erabilera, eredia osatuz eta hedatuz joan ahal izango da eta.

Egoera minorizatuaren behe lainotik gora igarota, aitzindari-talde hori gorpuzteko, “garrantzizkoa da —diosku Haugenek— aurretik doazen horiek benetazko eragingarri bat izatea egiten duten lana eskertzeko adinakoa. Sendotu egin behar da, besterik ezean, berauenganako autokonfidantza eta sentiarazi egin behar zaie bizi diren tokiko eredu imitagarriak direla, bertakoenak”. Ezelako mistizismotatik urruti, etxean bertan eta etxetik urruti segituan antzematen zaio ingurukoa denari, eta hori ona da berez: entzun, eta... “hori harakue edo honakue izengo dok ba!”, esatea, berez da ederra edonorentzako bere tokian. Orhipetik, Txindokipetik edo Udalaizpetik ikustea Euskal Herria, gauza bat eta bera da, baina,aldi berean, oso gauza ezberdina. Osagarritasuna aurkitzea da oreka ezartzen duena.

#### 4.2. Ageriko-nukleoaren egitekoa

4. kuadroarekin jarraituz, ageriko nukleoaren zeregina litzateke hazi-nukleoko bi azpitaldeen baitatik bateratuta ateratzen diren proposamenei hasiera bateko onargarritasuna ematea; behar beste aztertu eta gero, jakina, tipo linguistikoen optimizazioarako eman beharreko urratsak zein tokitan hasi behar diren ematen zein funtziotan eragin gura izateko: zer egin, norengan eragiteko, zein tokitan? izan daitezke galderak eta hortik abiatu interlokutore bila.

Hazi-nukleoaren lana hasi berritan dagoela, Arrasaten behintzat —hala ez dagoen arren eskualdeko herri guztietan—, komeni da dagoeneko pentsatzen hasia denon artean ea herri mailara hedatzen joateko zeintzuk izan litezkeen urrats batzuk.

Irakaskuntzari begira, pertsonen optimizazioa lortu guran, era honetako ikastaroak izan daitezke martxan jartzeko modukoak hurrenez hurren.

##### *A) Talde esplizitoko jendearen gaitasuna lantzeko.*

Batuan AB eta BA diren pertsonen zuzendua. Hurrengo fase batean ereduaren osaketaz eta hedaketaz arduratzen hasiko direnak beste batzuei irakatsiz hainbat modutara. Eskualde mailako eta herri-mailako kazetariak, euskaltegietan alfabetatze-lanetan ari direnak, eskolaurrean lanean ari diren irakasleak, idazle eta itzultzaileak... izan daitezke, burua asko nekatu gabe, hartzailagoaren artean lehentasuna eduki dezaketenen arteko batzuk.

##### *B) Herriko biztunen gaitasuna optimizatzeko.*

Ageriko nukleoko jendeak emango lituzke. Bi eratakoak izan beharko lirarteke:

b.1. A ibilbidetik datozenak batuarantz abia daitezten, eredu kulturalerantz gertukoenetik abiatuta. Haurrak eta gazte-heldu alfabetatugabeak leudeke interesatuen artean.

b.2. B ibilbidetik datozenei berezkitasuna lantzen laguntzeko. Ikastaro honen hartzailagoan, bestalde, beste bi multzo, behintzat, ikusten dira:

—Bertakoa galdu antzean izanda, edo beste zonalderen batetik bertaratuta, ber-

takoa ikasteko gogoia daukan jendeari laguntzeko. Batuaren eredu kulturalaren jabe izatea lagungarri izango da, ezbairik gabe.

—Euskaraz, ezelako barietatetan 0 izatetik datozenak, eta prozesu kulturalen aurrera egin ahala, berezkotasunera, herriko barietatera salto egiteko beharra somatzen dutenei zuzendua.

C) *Funtzioetan eta tokietan eragiteko estrategien artean.*

*Ikastaroak eta mintegiak.*

c.1. *Didaktikari dagokionez:* Bertako euskararen ezagupidea ikasgelaritzen hasteko, materiala sortu eta frogatu egin beharko da.

c.2. *Estiloari dagokionez:* Bateratu egin beharko dira erizpideak eta zubiak egin herri-mailako komunikabideetako eredia baliagarri izan dakien irakasteko eginkizuna daukatenei.

c.3. (...) Eta beste hainbat eta hainbat behar, somatuz joango garenak aurrera egin ahala.

Garrantzitsua dena, une honetan, makinaria hau martxan jar lezakeen kontaktua arrankatzea da, behingoz baina prisarik gabe, maila sozialean. Eskualdeko herrietako euskara-elkarteak hartuta oinarri modura, bertako hazi-nukleoak izan daitezke, elkarrekin, Bergarako UNEDeko Euskal Kultur Departamentua hartuta bilgune orain arte bezala, lanean aurreratzen hasteko modu koherente bat une honetan; beti ere, Udaletako euskara-zerbitzuetako partaideak oso gertutik jarraitzen dutela dinamika eta ahaztu gabe Deba eskualdeko bi mankomunitateen berezko zeregina izan behar dela, berandu baino lehen, eskuartean daukagun egitekoari azpiegitura eta baliabiak eskaintzen hastearena.

## 5. Arrasateko azken urteotako ihardueraz: Arrasate Euskaldun Dezagun

Herriko barietatearen eta batuaren arteko hierarkizazioari buruz Arrasateko euskalgintzan aritzeko, helduleku askotatik ebatu ahal zaio gaiari. Oraingo honetan lau arlotaz esan gura nuke bat edo beste, horiek esanda nondik nora ibili diren gauzak laburbildu daitekeelakoan.

### 5.1. AEDren lehen urteetan (1983-88)

Gure artean sarri aipatzen den gaia den arren, Arrasateetik kanpora jende askok ez daki beste zonalde batzuetatik geure jaioterrira etorritako euskaldunak izan zirela, 1983ko azken hiruhilabeteko hartan hasita, AEDren sorreran eragin zutenen arteko asko eta asko. Izen konkretuetan erreparatzen hasita, gipuzkoarrak ziren gehientsuenak. Datu jakingarria da AEDren sorreratik Elkartek izan dituen 3 lehendakariak ez direla Arrasaten jaiok, Urola eta Goierri aldean baizik. Ziur aski ez ginatete gezurretan arituko esanez gero AEDren proiektu integratzailea lehenik eta behin herrian bertakotuta daukagun kanpoko euskaldungoaren integratzaile bide izan dela.

Jaioterriak jaioterri, kontua da, oso normala den eran, ez zela bertako barietatea ohizkoa izan AEDren zeregin formaletan urte hauetan. Bilerak, idatziak, propaganda... beti euskaraz, bai, eta beti batua zuzenean. Pasartetxo honetan bakarrik esaten denari begiratzen dionak, ez dezala pentsa, hala ere, hau esatean "gaitzerdika" ari garenik, bertako euskaran gutxitxo egin ote dugun arren, batuan bada ere egin egin

dugula aurrera esan gura denik; inondik inora. Ez dago gaitzerdirik, egin ahal izan dena egin da bere momentuan: behar den moduan informatuta, punta ateratzen aspertzen ez direnei segituan erantzun ahal zaie lekutan geundekeela elkartzen hasi ez bagina bertako barietatearen estandarizazioa gauzatzen hasi aurretik. Are gehiago: urteen poderioz bizituz doala bertako barietatearekiko kezka esango nuke, eta horretan badu eraginik egindako bideak berak irakatsi digunak; ur geldia eta iturriak ez dira gauza bera eta.

Gainera, gai honekin ari garela, bada beste arlo bat dialektologiaren sozializatzaileek ahaztu egiten dutena batuaren eta bertako barietatearen arteko eztabaidan: osagarritasunarena. Esan nahi da: bideak eskaini behar dira bertakoa ikasi eta erabili ahal izateko, bai; eta, aldi berean, baita bertakoak batuan trebatu daitezen ere. Gauden egoeran gaudenez, deskonpentsatua dago balantza bertakoaren kaltetan, baina inork ez dezala batua-euskalkia dikotomia ezarri (beste gauza guztien gainetik) erdara-euskara dikotomia nagusitzen den tokian.

Ausartuko nintzateke esatera, AEDk aukera eskaintzen digula bertan gabiltzan bertako eta bertakotu guztiei bai batuan eta bai bertakoan sakontzeko, bakoitzak gehien faltan somatzen duen horretan. Niri bezala beste askori ere lagundu egin die batuan trebatzeko inguruan ibiltzeak.<sup>22</sup>

Dinamika ugaritu ahala, 625 bazkide jadanik, AEDko aitzinadarien artean arrastearren proportzioa nagusituz doan neurrian, gero eta arruntagoa da bertako barietatearen presentzia izatea ahozko harremanetan nagusitzen dena, bileretan gero eta gehiago, eta harreman informaletan nagusi.

Urte hauetan eman diren urratsen kualitatibotasunean erreparatuz, batez ere, hiru mugarri jarri gura nituzke eta berorietaz zer edo zer esan: Arrasate Press, Arrasate Telebista eta Hitzarmena.

## 5.2. Arrasate Press

1988ko abenduan hasi zen herri-aldizkari hau bere bidea egiten; gerora ikusten ari denez, aitzindari-lana euskarazko herri-prentsari dagokionean. Astekaria, doanekoa, buzoian jasotzen dena... eta erabat euskaraz.

Proiektuaren berritasuna kontutan harturik, batetik, eta bertako euskalkiaren estandarizazio prozesuaren gabezia, bestetik, ez da harritzekoa kaleratutako produktua ea erabat batuaz burututakoa izatea. Eta, berriro ere, ez nuke gaitzerdirik jarriko: izatekotan horrela behar zuen.

Edozein modutan, aitzindaria denez Arrasate Press herri mailako prentsari dagokionean, esan beharrekoa da ez duela zertan eredu izan behar baita euskalkiaren erabilerari dagokionean ere beste edonorako; herri bakoitza dagoen tokian dago eta egoera horretatik abiatu behar du euskalkiaren tratamenduari dagokionean. Izan dadila eredu izan behar badu baina ez, inondik inora, erabateko imitagai.

Bertako barietateari dagokionez, hasiera bertatik eta urtebete luzean, astero-astero, bi lagunek, berrian berri ezer ez zegoen tokitik "famauen ahotik" artikulua sorta

(22) Bittor Kapanagaren aipu bat berriro ere harira eror daitekeelakoa:

Arestian ohartzten ari naiz, euskera batua irakasten eta ikasten saiatzen diren lekuetan bertako hizkera ere indartu egiten dela, eta beste batzuetan erdara bakarrik indartzen dela (Kapanaga 1986: 90).

Apalki baina tinkoki, ekin eta saiatu, gorra entzuten ikasiko duten arte (Kapanaga 1986: 90).



ateratzen joan ziren Arrasate Pressen orrietan, eta baita arrakasta lortu ere irakurleen artean.<sup>23</sup> Ezin zen bestela izan eta, txalo beste txistu jasoko zuen ia, edozein modutan, bi lagunen ahaleginak; izan ere, behin baino gehiagotan entzun behar izango baitzuten: “hori ez dok Mondragueko euskerie!” Eta ez da harritzekoa halako iritzia izatea, entrebistetatik jasotakoan transkribaketa izanik argitaratutakoa, inkestatuen grafolektoa gutxitan etor baitaiteke bete-betean bat norberaren idiolektoarekin. Gustora ikusiko genituzke berriro ere denak bildu eta argitaratuta.<sup>24</sup>

“Famauen ahotik” sailarekin batera, Bergara aldeko euskararen idatzita, “zelebrekeriak” izenburupean txiste-bilduma polita osatu da denboraren joanean. Izan dira, bestalde, bertako euskararen itxura ematen ahalegindu diren noizbehinkako kolaboratzaileak ere: “Txirrindua” eta “Tontorrez tontor” sailak, kasu.

Edonola, ezkutatzea ere ez da zilegi eta, izan dira kritika bat baino gehiago Arrasate Pressi luzatu zaizkionak bertako euskarari ematen dion espazio marginala dela eta. Ez dira ahaztekoak.<sup>40</sup>

Bertakotu beharrean eta kulturizatu beharrean dauden eskariak ez direnez beretsuak, eta bi multzoen beharrak asetzeraz jo behar duenez astekariak, aurretiaz aipatutako hautaketa eta kodaketa lanak egin ahala bertako barietateari dagokionean, hasi egin daiteke Arrasate Press osaketa eta hedaketa faseetarako tresna garrantzitsu bilakatzen. Ez diezaiola inork eskatu herri-aldizkari bati, ordea, berak bete ezin dezakeen lanik, ez dagokion lanik.

Astekariaren ezarpen eta zabalkundeaz egin diren azterketetako emaitzen arabera, “innobazioa eta bezeroari ematen zaion garrantzia” (Bergaretxe) omen dira izandako arrakastaren giltzak.

Azterketaren emaitzen artean bada garrantzi handiko ondorio bat, nire ustez, aitatu barik utzi gura ez nukeena. Azterketaren egilearen ustez:

(23) Jose Manuel Bergaretxe soziologoak egindako *Arrasate Press eta Arrasate Telebistaren ezarpen eta zabalkundeari buruzko azterketa* lanean ageri denez, “Famauen ahotik” saila, Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai adiskideek egiten zutena, arrakasta handikoa izan zen irakurleen artean.

Horrela diote datuek:

%15,98ak ez du ezagutzen.

%70,19ak gustoko du.

%13,90ak ez du gustoko.

Halaber, Lan Kide Aurrezkiko Marketing sailak 1989ko azaroan kaleratutako *Arrasate Press aldizkariaren ezarpen eta zabalkundeari buruzko azterketa* ikerlanean ere, punta-puntan ageri da “Berbaroa” saila adin-talde gehientsuenetan. (Bergaretxe: 41).

16-21	22-31	32-41	42-51	52-65
Kirolak	Hemengo gaiak	Berbaroa	Hemengo gaiak	Hemengo gaiak
Inkestak	Kirolak	Elkarrizketak	Berbaroa	Berbaroa
			Inkestak	

(24) Egileek erdi-agindu bezala Arrasate Pressen 75.zkian “...oñi arte Arrasate Pressen emondako kontuek txukun txukun jarri eta liburuxko batean agertzeko gogoik pe etxaku falta”.

(25) Koldo Zuazok esandakoa, kasu, horrela jaso zen Arrasate Pressen 19. zkian:

Nik Arrasate Pressen ikusten dudak akatsik handiena 32 orrietatik bakarrik bat bertako euskaraz izatea da. Orrialde honetan, gainera, kolumna bat Bergarako euskaraz idatzita dago. Eta tratatzen den gaia ikusten badugu, txisteak dira, honek bertako euskalkia pailazoan hizkuntza bezala identifikatzeko duen arriskuarekin.

(...) euskaraz ez dakitenek edo ikasten ari direnen artean euskera errez baten beharra ikusten dute; hau da, eskolan edo euskaltegian ikasitako euskara praktikara eramateko bide bat eta aukera bat Arrasate Pressekin eskaintzen die. Datu hau aurreko estudioan ere garbi agertzen zen, bertan esaten zenez inkestatuen %81ek positibotzat zuen Arrasate Press euskara ikasten ari zirenentzat eta (Bergaretxe).

Behin baino gehiagotan argitaratu izan diren gutunetan, agertu izan dute hainbatek ardura eta gogoia bertako euskarari leku gehiago egiteko.

Zergatik ez erabaki zer egin daitekeen Arrasate Pressen bertako euskarari? Nire ustez honelako urratsik ez da eman eta badakit oraindik asko zehaztu beharko dela, batez ere, inguruko euskara nola batu eta zein erizpide erabili horretarako.<sup>26</sup>

Esan egiten da aurreko zitan ez dela urratsik eman Arrasate Pressen bertako euskarari lekua egiteko estrategia aztertzen. Eta ziur aski ez zaio arrazoirik faltako, badelako, hain zuzen ere, horrela pentsatzera eramanez gaitzakeen beste zenbait detaille: orain arte egin diren bi ikerketetan ez da galderarik batere egin bertako euskarari dagokionez irakurlegoaren eritzia jakiteko; bestalde, *Prentsa lokalari buruzko 1. ibardunaldiak* burutzean, Arrasate Pressen zuzendari-oihak aurkezturiko txostenean, "kontuan hartu zuen inguruan erabiltzen den hizkuntza"<sup>27</sup> esaten zuen behin bere txosten osoan beste inolako detailletan zehaztu gabe. Hori dela eta, bidezkoa dirudi esatea Arrasate Pressen ez duela lehentasunik izan bertako barietateari eman dakiokeen erabilerari buruzko hausnarketak. Ez da berandu, hala ere, eta martxan dagoena berbideratu egin daitekeela ezin da ahaztu.

Ez litzateke komenigarri, edozein modutan, aldizkariaren orriak probaleku modura erabiltzea. Lehenik eta behin argitaratu asmorik gabe hainbat saio egin behar dira, urrutiko intxaurrak hamalau barik lautuan geratzeko arriskua handia da eta. Berandu baino lehen zerbaitetan hasi beharra badagoela, hala ere, gero eta begibistakoa dirudi, herriko pertsona helduen ezpainetatik jasotako esalditxoak (Foto-inkestatan kasu)<sup>28</sup> batuaz ikustea, adibidez, asterokoari sinesgarritasuna kenduz joateko zio izan daiteke eta.

Dagokigun gaiaz eta Arrasate Pressekin lotuz, bukatzeko, ahaztu ezinekkoa da kazetariaren gaitasunaren pentzudan egongo dela aurrerantzean ere bertako barietateari emango zaion jitea; horregatik, bidezkoa izan daiteke gai hau kontutan izatea langileak aukeratzekoan.

### 5.3. Arrasate telebista (ATB)

1990eko otsailaren 13an, astearte batean gainera, ekin zion emisioak emateari. Idatzizkoari ikusentzutezkoa batzen zitzaion, eta modu horretara herri mailako komunikabideetan euskararentzako leku berriak irabazi.

(26) Karmelo Uribarrenek idatzia Arrasate Pressen, 129. zk.

(27) Arrasaten, 1991ko azaroaren 22an eta 23an buruturiko Prentsa lokalari buruzko 1. ibardunaldietan, Jose Aranzabalek, Arrasateko komunikabideen zuzendari izandakoak esandakoak da aipatu pasartea, berak luzaturiko "Herri aldizkari baten tajuketa" izeneko ponentzia interesgarrian.

(28) Adibide askoren artean, bat hartuko dugu. Patxi Garai izeneko mondrautar ezagunari honakoa galdetzean: "Zer erizten diozu Euskaldunen Egunkariari?", sinesgarria ote da bere ezpainetatik halako erantzuna jasotzea?: "Ikusi egin dut, baina oraindik ez dut hartu, baina hartu behar dut. Mutiko txikiak ginenean inork erderarik ez genekien, eta ez ziguten euskaraz hitz egiten uzten. Orain euskaraz ikasi behar".

Aldizkariaren kasuan bezala, batua izan da orain artean nagusitu dena. ATBn, hori bai, ahozko erregistroa izanik, askoz ere presentzia handiagoa hartzen du bertakoak. Are gehiago, aurreritziak uxatzeko tresna eta baliabide aproposa dela erakusten ari da bi urte hauetan. Bertako barietateaz aurreritziak uxatzeko mesedegarria bada, bada baliagarria, bestalde, esatekorik daukaten herritarrek “euskera ona” izatearen garrantziaz jabetuz joan daitezten; alegia, gazteleraz egingo luketen bezain ondo euskaraz ere egiteko gauza izan behar direla konturatuz joan daitezten.

Herriko informazioa eskaintzea duenez helburu, oso gertukoa egiten zaio arrasatearrari ATB. Ikusleak, ezagutu egiten dituen pertsonak ikusten ditu, gertutik dagozkion gaiez jasotzen du informazioa, eta azken finean “euskara bultzatu baino gehiago, gure bizitzako partaide egiten da”.<sup>29</sup>

Gertutasun hori bideratzen jakin behar du ATBk herriko sektore guztietara, guzti-guztiek ikus dezaten (euskaradunek zein ez- euskaradunek). Egun imajina ezin genezakeen bestekoa izan daiteke ATBren eragina, esate baterako, eskoletan euskalduntzen ari diren etxe erdaldunetako haurrentzako, edo helduak euskara ikasten has daitezten akuilu.

ATB etxeko sukalde eta egongeletan sartzen denez, lagungarri izan daiteke etxeko hizkuntz-ohiturak euskarara lerratzeko, normalago bihurtzeko; hala ere, ez dezala inork bere burua engainatu, ikustea eta gozatzea ATBekin gauza bat delako eta beste bat intimitateko hizkuntz-ohiturak bapatean aldatzea edozein adinetan. Pertsonarenganaino iritsi behar da, azken finean, kontzientziaren eremuraino, eta hori ez da astebetean egiten kontrako eragingarriek ere bizi-bizirik diharduten bitartean: edo eredu kualitatibo hobea eskaintzen da euskal komunitate linguistikoaren interesei erantzunez, edo pentsatzekoa da ezin izango diola aurre egin gainerako kate guztien erasoaldi kuantitatiboari.

Euskararen bidez bideratzen ari den proiektu integratzailean punta-puntako tresnak dira komunikabideak, herriko gauzen berri euskaraz emanda euskararen beharra oso modu erosoan iradokitzen dutenak egunez egun. Ez dira hasiberriak ez Arrasate Press eta ez ATB, ondo errotutako proiektuak direla esan daiteke honez gero. Horregatik daude jada gehiago ematen hasteko moduan.

#### 5.4. Euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena

1990eko martxoaren 28an ekinda, hasiera batean 38 entitatek sinatuta, hitzartu egin zuten “Entitateen elkarren arteko harremanak, ahoz nahiz idatzizkoak, beti EUSKARAZ” izatea. Entitateen artean, denetarik ikus zitekeen hasiera beretik, administrazioa (Udala), ikastetxeak (herriko guztiak), enpresak (Lagun-Aro, Hotz-Bero, Anboto,...), talde politikoak, sindikatuak, banketxeak, elkarte kulturalak, euskaltegiak,...

Gerora, beste ekitaldi batean, urte bereko abenduaren 19an, beste 21 entitate atxiki zitzaizkion hitzarmenari, eta jakinarazi zen %80an ari zela betetzen hitzarmena ordura artean.

Hitzarmenaren sinatzaileek zein partikularrek elkarren artean komunikatzeko

(29) Bergaretxe soziologoaren lanetik jasoa.

darabilten hizkuntz barrietatea dela eta, esan beharrik ez dago batua dela nagusi; badira, hala ere, batua oso ondo ezagutu ez arren horregatik erdarara jotzen ez dutenak eta erdi-gipuzkera edo erdi-mondragueraz moldatu egiten direnak.<sup>30</sup>

*Jazten* aldizkaritik hona hitz batzuk ekarriz, berriro esan nezake:

Hitzarmenak hedatuko badira, aldi berean hizkuntz komunitateak trinkotzen eta norberak bete beharreko zereginetarako euskaraz hizkuntz gaitasuna lortzen abiatu beharko du populazioak.<sup>31</sup>

Nork bere tokian egiten duen esfortzuaren ezintasunetik, dagoeneko ari garen guztiok elkarrekin bideratzen hasita gauden ahaleginaren atseginenera salto egin ahala, bidea bera zabaldu eta argitu egiten da. Ernegatuta ibiltzea edo gustora ibiltzea egoera beraren aurrean pertsonaren esku egon ohi denez gehientsuenetan, bakoitzak aukera dezala bere bidelaguna, baina aholkutxo bat ematea zilegi bazait, egoeraren gorriari etsipena edo agresibitatea gaineratzean egoera bera okertu egiten dela, gogoratzea, ez da txarto etorriko. Ez da euskara gugandik kanpo dagoen ezer: geu nola gauden, halaxe dago bera.

Apurka-apurka euskararentzako arlo formalak zabaltzen ari dira Arrasaten eta inguruan, euskara eta euskaldunok gero eta funtzio gehiagotan elkartuak egon ahal izateko bideak ugaritzen ari dira, ikusten denez. Zorioneko "prestigioa" irabazten ari dela/garela ematen du. Horrela somatzen dugu.

Azken urte hauetako lanaren emaitzak ikusten hasita gaude euskararen aukera eginda daukagunok; ikusten hasita eta gozatzen ikasita esango nuke, besterik ez bada ere (gertatuko ez den arren) "dantzan egindakoa dantzan eginda dagoela" pentsatzea hobe zaigu eta.

Helburuetan eta baliabideetan euskaldun garenez, geure herrian euskarari ahalik eta funtziorik gehienak zabaltzea izan behar dugu helburu; geu izan geure begiz eta ez inoren begitan ibili beti. Elealbotasuna ziurtatzera jo behar dugu, bideak zabaldu jendeak (batez ere gazteek) euskararen aukera egin ahal izan dezan benetan. Afektiboki eta efektiboki, edo efektiboki lehenago eta afektiboki geroago, atxikitu egin behar zaio Arrasate euskarari, nahiz eta Mondragón-ek aurrera jarraituko duen luzaroan oraindik.

Orain arte esan ahal izan bada, "hori euskaldune da, eta Arrasatekue (Mondraguekue)", horrela jarrai dezan izaten luzaroan, eta askoz ere modu duinagoan, ezin da zentzuzko inor kontra agertu. Lurraren eta hizkuntzaren artean lotura ikusten duenak, beste maila batean ikusi egiten du Udalaiz-Jarindo-Kurtzeberrik besarkatzen duten Leintz bailararen eta bertako euskararen/euskaldunen arteko lotura. Lurretik etorriko da hizkuntzara edo alderantziz, leku ezberdinetik abiatuta ere leku berera (osagarritasunera) iristea da garrantzitsuena eta.

(30) Hona hemen herriko barrietarean saiartzen direnen adibidetxo bat:

Nai dot, lizenzia, anai artean terrenoa banatzeko. Nai dutenak bere escriturak egiteko.

Onen orriekin batera bialtzen dot terrenuen agiria. Ezkerrik azko.

(31) *Jazten* aldizkariaren 3. zenbakian, "Zer da AED? Zer dago bere atzetik?" monografikorako idatzi nuen "Gure lanaren norabidearen teorizazioa" artikulutik jasoa (39.or).

## Bibliografia

- Altube, S., 1933, "La vida del euskera", *Euskera* 14.
- , 1949, "La Unificación del Euskera Literario", *EJ* 3: 2-3.
- , 1960, "Eibartarrak eta Euskera", *Euskera* 5.
- Baxok, E., 1986, "Euskalkiak, euskara batua eta Euskal Herriko diglosia", in *Euskara. Euskalkiak*, 125-140, Eibar.
- Elortza, J., 1988, "Bergara eta euskera", in *Bergarako euskera*, 19-53, UNED, Bergara.
- Haugen, E., 1977, "Lingüística y planificación idiomática", in *Lecturas de Sociolingüística*, EDAF, Madrid.
- Kapanaga, B., 1986, "Euskera batua eta euskalkiak", in *Euskara. Euskalkiak*, 77-90, Eibar.
- Sánchez Carrión, J. M. [Txepetx], 1991, *Un futuro para nuestro pasado*, Elkar-Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Vélez de Mendizábal, 1981, *Jokin Zaitegi*, Arrasate.